

BIZIKIDETZARAKO AKORDIOEN GIDA



Hezkuntza eta Kirol Fakultatea
(2025eko ekainaren 24ko Fakultate Batzarrak onartua)

GIDAREN AURKEZPENA ETA ERABILERA

Zer da dokumentu hau?

Bizikidetzarako Akordioen Gida hau Hezkuntza eta Kirol Fakultateko komunitate osoari zuzendutako erreferentzia-dokumentua da. Bertan, gure ikastegian elkarbizitza harmoniotsua ziurtatzeko jarraitu beharreko arau eta irizpideak biltzen dira.

Zein da gidaren helburua?

Dokumentu honen xede nagusia da fakultateko kide guztiei (ikasle, irakasle eta administrazio eta zerbitzuetako langileei) elkarbizitza osasuntsua sustatzeko jarraibide argiak eskaintzea, errespetuan eta erantzunkidetasunean oinarrituta.

Nola erabili gida hau?

Gida hau kontsulta-tresna gisa erabili behar da. Fakultateko espazioetan, jarduera akademikoetan, tutoretzetan eta komunikazio elektronikoetan nola jokatu behar den argitzen duten atalak ditu. Halaber, bizikidetza-arazorik sortuz gero, jarraitu beharreko prozedurak azaltzen ditu.

Nori zuzenduta dago?

Fakultateko kide guztiek ezagutu eta bete behar dute gida hau: ikasleek, irakasleek eta administrazio eta zerbitzuetako langileek. Denon ardura da dokumentu honetan islatzen diren balioak eta arauak errespetatzea eta betetzea.

AURKIBIDEA

1. SARRERA	3
2. TESTUINGURUA	4
3. HEZKUNTZA ETA KIROL FAKULTATEAN ERRESPETATU BEHARREKO ALDERDIAK	5
3.1. BIZIKIDETZA ESPAZIO KOMUNETAN	5
3.2. BIZIKIDETZA ARAUAK JARDUERA AKADEMIKOAREN GARAPENEAN	5
3.3. TUTORETZAK	7
3.4. POSTA ELEKTRONIKOA: ERABILERA ARDURATSUA ETA JASANGARRIA	7
3.5. BIZIKIDETZA-ARAZOAK: GERTAKARIEN PARTEA	8
ERANSKINAK	9

1. SARRERA

Bizikidetza egokia garatzea gizartearen oinarrizko zutabeetako bat da; hezkuntza zentroetako bizikidetza gizarteko bizikidetzaren isla da, bertan ikusi ohi ditugun arazo eta kontraesan guztiekin. Ildo horretatik, hezkuntza prozesu guztiek erantzunkidetasunean eta errespetuan oinarritutako jarrerak eta jokabideak sustatu behar dituzte; ezinbestekoa da hezkuntza erkidegoko sektore guztien inplikazioa eta adostasuna. Koordinazioak, ikuspegi zabal batetik begiratuta, honako hau dakar: ikasgaiak irakasteko planteamenduaz harago, ahaleginak egitea ikastegiaren funtzionamenduaren alderdiak bateratzeko. Era horretan, arduran eta jasangarritasunean oinarritutako kultura instituzionala eskaini nahi da, Fakultateko kideen arteko elkarbizitza erraztuz.

Hain zuzen ere, gida honetan jasotako akordioek Fakultateko bizikidetza hobetzea dute xede. Aipatu beharrekoa da 2023ko uztailaren 20ko Gobernu Kontseiluan, Euskal Herriko Unibertsitateak [Bizikidetza Arautegia](#) onartu zuela. Alde horretatik, eta arautegi hori oinarritzat harturik, jarraian islatuko ditugun puntu guztiek errespetuzko giroa sustatu nahi dute Fakultatean, bai eta ikastegiko kideen ardura indibiduala zein kolektiboa bultzatu ere.

2. TESTUINGURUA

Hezkuntza eta Kirol Fakultateak, 2019ko ekainaren 24an ospatutako Fakultate Batzarrean, bere Bizikidetzarako Akordioan Gida onartu zuen, urte hauetan guztietan Fakultateko alderdi adierazgarri eta lagungarri bihurtu dena; arestian aipatu den moduan, 2023ko uztailaren 20ko Gobernu Kontseiluan onartu zen Bizikidetzara Arautegia UPV/EHUko, ikastegi eta kolektibo guztietarako ardatz nagusia izango dena. Bere 1. artikuluan helburua eta xedea jasotzen ditu, eta ezinbestekoa iruditzen zaigu hortik abiatzea:

1.- Arautegi honen xedea da Euskal Herriko Unibertsitateko bizikidetzara arauak zehaztea, Unibertsitate Bizikidetzari buruzko 3/2022 Legean xedatutakoa betez.

2. Hala, Euskal Herriko Unibertsitateko Bizikidetzara Arautegiaren helburua da UPV/EHU elkar ulertzeko bideak eta bizikidetzara baketsua bultzatzea, baita balio demokratikoekiko, oinarritzko eskubideekiko eta askatasun publikoekiko errespetu osoa bermatzea ere. Horretarako, honako alderdi hauek sustatuko dira:

- a) aniztasunarekiko errespetua eta tolerantzia, berdintasuna, inklusioa eta kolektibo babesgabeen aldeko ekintza positiboko neurriak;
- b) adierazpen askatasuna, biltzeko eta elkartzeko eskubidea, irakaskuntzarako askatasuna eta katedra askatasuna;
- c) indarkeria, diskriminazio edo jazarpen ororen ezabatzea, arrazoia edozein delarik ere: sexua, sexu orientazioa, genero identitate edo adierazpena, sexu ezaugarriak, jatorria, talde etnikoa, desgaitasuna, adina, osasun egoera, klase soziala, erlijioa edo sinesmenak, hizkuntza, edota beste edozein ezaugarri edo inguruabar pertsonal zein sozial;
- d) hizkuntza eskubideen errespetua;
- e) gardentasuna eta zintzotasuna jarduera akademikoetan;
- f) unibertsitatearen ondasun eta baliabideen erabilera eta kontserbazioa, zerbitzu publiko gisa duen funtzioaren arabera;
- g) espazio komunen errespetua, espazio digitalena barne;
- h) unibertsitatearen izena eta ikurrak UPV/EHUk ezarritako protokoloen arabera erabiltzea.

3. HEZKUNTZA ETA KIROL FAKULTATEAN ERRESPETATU BEHARREKO ALDERDIAK

3.1. BIZIKIDETZA ESPAZIO KOMUNETAN

Espazio komunak ikasleek, irakasleek nahiz Administrazio eta Zerbitzuetako langileek elkarrekin erabiltzeko eremu partekatuak dira. Horrenbestez, honako alderdi hauek azpimarratzeari garrantzitsu deritzogu:

1. Suteetako eskailerak eta larrialdiko ateak larrialdi egoeretan soilik erabiltzeko dira.
2. Korridoreetan eta atsedeen guneeetan pertsona guztiei arriskurik gabe sartzea eta igarotzea bermatu behar zaie.
3. Korridoreetan, atsedeen guneeetan zein Ikaskuntza Kooperatiborako eta Dinamiko (IKD) guneeetan begirunezko jarrera agertu behar da.
4. Ikasgelako jarduera guztietan puntualtasuna zaindu behar da.
5. Informazioa emateko oholtzak eta kortxoak behar bezala erabili behar dira. Bestela, modu desegokian jarritako informazioa kendua izan daiteke.

3.2. BIZIKIDETZA ARAUAK JARDUERA AKADEMIKOEN GARAPENEAN

Elkar errespetatzea izango da betiere zentroko bizikidetza arauen oinarria. Horretarako, alderdi hauek azpimarratzea beharrezkoa iruditzen zaigu:

PARTE HARTZEA (EHuko Bizikidetza Arautegiaren 8. Artikuluan jasota)

1. Irakasgaiaren matrikulatuta dauden ikasleek soilik parte hartu ahal izango dute irakasgaiari lotutako jarduera akademikoetan. Jardueraren ardura duen irakasleak parte hartzeko baimena eman ahal izango die matrikulatuta ez dauden pertsonari, betiere ikastegiak eta unibertsitateak berak (behar besteko publizitatea eginez) ezarri dituen gidalerroen arabera.
2. Matrikula egina duten ikasleek eta irakaskuntza jardueran parte hartzen duten guztiek nortasuna agiriren bat erakutsi beharko dute, jardueraren ardura duen irakasleak hala egiteko eskatzen dien guztietan. Horretarako, indarreko araudiak xedatzen duenez, baliagarriak izango dira unibertsitateko txartela, NANA edo legez onargarria den beste edozein agiri.

JOKABIDEA (EHuko Bizikidetza Arautegiaren 9. artikuluan jasota)

1. Eskolen ordutegia errespetatu behar da. Ikasleren batek, aldez aurretik irakaslearekin adostuta, ikasgelara geroago sartu behar badu edota ikasgelatik lehenago atera behar badu, eskolen garapenean trabarik ez egiten saiatu behar du.
2. Eskolen iraupena edozein dela (bi orduko saioa, ordubetekoa...), saioen arteko atsedena 10 minutukoa da.
3. Gelan ezin da jan; ura soilik edan ahal izango da, eta onargarriak izango dira ohiko zenbait salbuespen.
4. Jarduera akademikoetan parte hartzen duten ikasleek ezin izango dute jardueraren garapen egokia eragotzi edo oztopatuko duen ekintzarik egin. Berezik, isilik egon beharko dira egoki den guztietan, jarduera akademikoaren arduradunak unean-unean

ematen dituen jarraibideak kontuan hartuta.

5. Hitz egiteko txandak eskatu eta errespetatu behar dira, eta (eskolako dinamikaren arabera) isiltasuna, elkarri entzutea eta ulermena edo parte-hartze aktiboa erakutsi behar dira.
6. Kontuan hartu behar da taldekako lana dela gure graduak ordezkatzeko duten adierazgarri nagusietako bat (IKD eredua); beraz, garrantzitsua da taldekide guztiek bere onena ematea taldekako dinamika egokia ahalbidetzeko. Hala ere, prozesuan arazorik edo gatazkarik sortuz gero, momentuan jakinaraztea komeni da (tutoreari, irakasgaiaren arduradunari edota [koordinaziorako erreferenteei](#): modulukoa, minorrekua, kurtsoa edo gradukoa).
7. Oinarrizko higie arauak errespetatu behar dira.
8. Garbitasuneko eta Administrazio eta Zerbitzuetako pertsonalaren lana erraztu behar da, eta gela aurkitu dugun egoera berean utzi behar da.
9. Jarrera fisiko eta gorputzekoak egokiak izan behar dira, jokaera desegokiak (aharraiak, esaterako) saihestuz.

GAILU ELEKTRONIKOEN ERABILERA (EHuko Bizikidetza Arautegiaren 10. artikuluan jasota)

1. Jarduera akademikoak iraun bitartean, isilik izan beharko dira sakelako telefonoak eta gailu elektronikoak (ordenagailuak, tabletak eta antzekoa), eta jarduera akademikoaren arduradunak baimendutako helburuetarako soilik erabili ahal izango dira.
2. Jarduera akademikoak iraun bitartean, ezin izango da argazki edo audio nahiz bideo grabaziorik egin, salbu eta jardueraren ardura duten irakasleek edo argazki edo bideoan ager daitezkeen pertsonen hartarako baimena ematen badute berariaz.

ETIKA AKADEMIKOA (EHuko Bizikidetza Arautegiaren 11. artikuluan jasota)

Unibertsitatea ezagutza sortu, garatu eta transmititzeko erakunde nagusia den aldetik, egiaren, zintzotasunaren eta zorrotasun intelektualaren balioetan oinarritu behar du bere jardura osoa. Etika akademikoa ez da soilik arau-multzo bat; unibertsitate-komunitatearen bizitzaren funtsezko alderdia da, eta hezkuntza-prozesuaren osotasuna bermatzeko ezinbestekoa.

Hezkuntza eta Kirol Fakultatean, ikaskuntza, irakaskuntza eta ikerketa prozesu guztiak goi-mailako estandar etikoen arabera garatu behar dira, denon ardura izanik zintzotasun akademikoa sustatzea eta iruzurrezko jokabideak saihestea.

1. Ikasleen ebaluazio probetan eta lanetan ezin dira iruzurrezko metodoak erabili eta, ondorioz, honako arau hauek bete beharko dira:
 - a) Debekatuta dago lanak egiteko orduan edozein pieza intelektual osotasunean edo partzialki plagiatzea.
 - b) Azterketak edo ebaluazio probak egin bitartean, ezin izango da komunikatzeko edo datuak biltegiratzeko gailu elektronikorik erabili, ez bada probaren ezaugarriak direla-eta beharrezkoa dela eta irakasleek berariaz baimena eman dutela.

- c) Ebaluazio probak egin baino lehen, ezin izango dira horien enuntziatuak iruzurrezko bideen bitartez eskuratu, ez norberaren ez besteren mesedetan.
 - d) Debekatuta dago egindako probak lapurtzea edo moldatzea, baita kalifikazioak jasotzen dituzten dokumentuak lapurtu edo moldatzea ere.
 - e) Probak iraun bitartean, debekatuta dago kopiatzea eta ikaskideekin informazioa trukatzea, edota norberaren ezagutzaren bitartez lortuko ez zatekeen emaitzarik dakarren beste edozein metodo erabiltzea.
2. Artikulu honetan jasota dauden bizikidetza arauen artean dago, halaber, UPV/EHUko ebaluazio probetan eta lan akademikoetan jokabide makur eta iruzurrezkoak eragozteari eta etika akademikoari buruzko protokoloa.
 3. Irakasle eta ikertzaileek zorroztasun zientifikoarekin eta zintzotasunaren, esfortzuaren aintzatespenaren eta lankidetzaren printzipioen arabera egingo dute beren lana, besteen ezagutza modu irregularrean plagiatu eta baliatu gabe.

3.3. TUTORETZAK

Tutoretza-orduak ikasleen garapen akademikoan laguntzeko jarduerak dira. Alde horretatik, honako alderdi hauek azpimarratzea garrantzitsua da:

1. Ikasleek eskubidea dute indibidualki lagunduak eta orientatuak izateko haien ikaskuntza-prozesuan, eta horretarako tutoretzak jaso ahal dituzte ikasturtean zehar.
2. Ikasleak tutoretza-orduetara agertu ahal izatea erraztu behar da. Horretarako, tutoretza-orduak egoki banatzea gomendatzen da; beraz, aldeko elementua izanez gero, ordu horiek goizez eta arratsaldean banatzea aholkatzen da.
3. Irakasleek azken orduko aldaketarik egin behar izanez gero, bulegoko atean horretarako den oharra jartzeaz gain, eGELaren bidez nahiz GAURreko taldeko helbide elektronikoaren bidez aldaketaren berri ematea ikasleei gomendatzen da.
4. Tutoretza-orduak errespetatzea derrigorrezkoa da. Tutoretzarik adostekotan aldeztu aurretik ezarritako ordutegitik kanpo, ongi arrazoitutako egoeretan bakarrik izatea aholkatzen da.
5. Tutoretza ordu batera joan nahi izatekotan, gomendagarria da aldeztu aurretik abisatzea, irakasleak txandak egoki antola ditzan.
6. Tutoretza-orduak ez dira ikasleentzako eskola partikularrak: ez dira, beraz, dagoeneko emandako eskola errepikatzen.
7. Egoitzan, astearteetan, 12:00-15:00 bitarteko ordutegia bilerak egiteko eta ikasleentzako kultura jarduerak antolatzen laguntzeko dago. Hortaz, ordutegi horretan gomendatzen da eskolarik ez kokatzea ez eta tutoretzarik egitea ere.

3.4. POSTA ELEKTRONIKOA: ERABILERA ARDURATSUA ETA JASANGARRIA

Teknologiaren aurreramenak, denontzat ezagunak diren onurez gain, zenbait ondorio txar ere ekar ditzake. Izan ere, gailu elektronikoak direla medio, inpatientziaren eta berehalakotasunaren kultura bizi gara. Alde horretatik, oso garrantzitsua iruditzen zaigu arestiko balizko ondorio txarrak kontuan hartzea. Halaber, gogoan izatekoa da inguru akademiko batean gaudela: zenbait kontu zaindu behar ditugu helbide elektronikoaren bidezko komunikazioan. Horrenbestez, honako alderdi hauek azpimarratzeari garrantzitsu

deritzogu:

1. Ez gara denbora guztian konektatuta bizi. Badago eskubidea digitalki deskonektatua egoteko, eta inportantea da atseden zein opor epeak errespetatzea.
2. Mezu elektronikoen ordutegiak zaintzea gomendatzen da, asteburuetan eta jaiegunetan halakorik ez bidaliz.
3. Posta elektronikoko instituzionala erabili behar da komunikazioetarako.
4. Posta elektronikoa pertsonala eta besterenezina da; identitate-ordezkatzea delitua da.
5. Korreoak irakasgaia eskaintzen den hizkuntzan idatzi behar dira.
6. Ezinbestekoa da alderdi formalak zaintzea komunikazioetan: mezuak sarrera egokia izan behar du, igorlea identifikatu behar da eta testuinguru akademikora egokitu gabeko hizkera saihestu behar da, bai eta mezurik ez duten dokumentu atxikien bidalketak ere.

3.5. BIZIKIDETZA-ARAZOAK: GERTAKARIEN PARTEA

Begien bistakoa da, elkarbizitza hobetzeko ahaleginak egin arren, inoiz gerta daitekeela gatazkarik Fakultateko kideen artean. Alde horretatik, ikastegiak honako tresna eta protokolo hauek eskaintzen ditu:

1. Gertakarien parteak tresna izan nahi du: ikaskuntza-irakaskuntzako prozesuan jasotako gertakari larriak erregistratu ahal izateko.
2. Arestian aipatutako tresna, Teknikariak eta Kudeaketako eta Administrazio eta Zerbitzuetako (TEKAZEL), irakasleen eta ikasleen esku jartzen da (ikus lehen eranskina).
3. Gertakarien parte bat bete eta Fakultateko dekanuari helarazi behar zaio (hkf.dekanoa@ehu.eus).
4. Gertakarien parte bat entregatzea ezinbesteko baldintza da protokoloa abian jarri ahal izateko.
5. Gertakarien parte bat jaso ondoren, dekanok bizikidetzarako batzordea deituko du, egoera aztertzeko eta beharrezko ikusten diren neurriak hartzeko. Batzordeak bitartekaritza lana gauzatuko du. Bitartekaritzak, betiere, honako printzipio hauek beteko ditu: borondatezkotasuna, konfidentziasuna, berdintasuna, inpartzialtasuna, fede ona eta elkarrekiko errespetua, errepresalien prebentzio eta debekua, malgutasuna, argitasuna eta gardentasuna.
6. Gertakariaren larritasun mailaren arabera, Fakultateko Bizikidetza Batzordeak baloratuko du UPV/EHUko Bizikidetza Batzordera helaraztea.

1. Eranskina. Gertakarien partea



Hezkuntza eta Kirol Fakultateko DEKANOARI, behean sinatzen duenak

ADIERAZTEN DIO:

Esandako egun, ordu eta eraikuntzan

- Data:

- Ordua:

- Egoitza: Atala:

GERTAKARIAREN deskribapena (ahalik eta xehetasun gehienak eskaini):

ETA HALA JASOTA GERATZEN DA, behar diren neurriak har ditzan.

Vitoria-Gasteizen,-(e)ko-(a)ren-a

Sin.:

NAN: